



UNED-Bergara unibertsitatearen egoitza. JON URBE / ARGAZKI PRESS

URRUTIKO HEZKUNTZA

UNED-Bergara ikastegiak goi mailako heziketa eta etengabeko prestakuntza ikasketak eskaintza zabala egiten du. Ikasleek malgutasuna izaten dute ikasketak egiteko.

Azken 40 urteotan UNED-Bergara unibertsitateak ikasketak aukera desberdina ahalbidetzen die ikasketak egiteko denbora askorik ez duten edota eskoletara erregularri agertu ezin diren pertsonen, bai tutoretza presentzialak eta bai *on line* bidezko hezkuntza uzartzen dituen ikasketak eskaintzen eta metodologiaren bitartez.

2016-2017ko ikasturterako, 26 gradu eta ikastaro eskaintza zabala bideratzen ditu, goi mailako ikasketak hasi ala jarraitu, edota bere ezagutzak zabaldu nahi duen ororentzakoak.

Graduak, ingeniartzak, masterak eta graduondokoak, jakintza arlo desberdinak jorratzen dituen ikastaro eskaintzak eta hizkuntzak ikasketako programak eskaintzen ditu UNED-Bergara unibertsitateak.

Urrutiko unibertsitatea da, eta Bergaran du egoitza. Berrogei urteko eskarmentuaren bermearrekin, familia betebeharrak edota

profesionalak, goi mailako ikasketak egitearekin uztartu edo bateratzeko hautabide egokia bihurtu da.

Horregatik, baliabide aproposa da, edozein arrazoi dela medio, garai batean unibertsitate ikasketak utzi zituztenek berriz ere ikasketak horiei heltzeko, baita titulu-dunek beren prestakuntza osatzeko, edota gustuko ikasketak egiteko. Eta, nola ez, UNED-Bergarak unibertsitate sartzeko bide zabaltzen die goi mailako ikasketak egiteko aukerarik izan ez duten guztiak.

UNED-Bergarak eskaintzen duen malgutasunak eta urrutitik ikasketako metodologiak ahalbidetzen dute ikasleek beren ikasketak aurrera eramatea. Hori dela eta, ikasleen artean, pertsona gazteak ez ezik, hainbat esparrutako langileak, langabeak, ikasketak egiten jarraitu edo ikasketak egiten hasi nahi dutenak, etxean betebeharrak dituztenak eta erretiratu asko ere aurki daitezke. «Azken batean, UNED-Bergara izango ez balitz, gipuzkoar ikasle talde handi batek goi mailako ikasketak egiteko auke-

rarik ez luke izango», UNED-Bergara unibertsitateko arduradunen hitzetan.

Eskaintza ezagutu nahi duenak UNED-Bergara unibertsitatearen webgunean aurki dezake informazioa (www.uned.es/ca-bergara), eta argibide zehatzagoak nahi dituenak idazkaritzarekin harremanetan jar daiteke, telefonoz (943-76 90 33) edota posta elektronikoz (info@bergara.uned.es).

UNED-Bergara ikasketxeak 26 gradu hauek eskaintzen ditu: Geografia eta Historia, Artearen Historia, Espainiar Hizkuntza eta Literatura, Ingeles Ikasketak, Psikologia, Filosofia, Gizarte eta Kultur Antropologia, Zuzenbidea, Gizarte Lana, Administrazio Publikoaren Zientzia Juridikoak, Politika eta Administrazio Zientzia, Soziologia, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza, Ekonomia, Turismoa, Pedagogia, Gizarte Hezkuntza, Fisika, Kimika, Matematika, Ingeñiaritza Informatikoa, Ingeñiaritza Informazioaren Teknologian, Ingeñiaritza Elektronikoa, Ingeñiaritza Mekanikoa, In-

geniaritza Mekanikoa, eta Ingeñiaritza Teknologia Industrialean.

40. URTEURRENA

Gipuzkoako unibertsitateen artean historia eta eskarmentu handienetako du UNED-Bergarak. 40 urte bete ditu 2016an, eta, urterena ospatzeko eta bere ibilbidea goraiatzeko, «Gipuzkoako gizartearekin batera partekatze» hainbat egitasmo prestatu ditu. Horien artean, jende ororentzako hitzaldi ziklo bat, UNED-Bergara unibertsitatearen diziplina anitzeko komunitateak zenbait gai buruz eman duen hitzaldi sorta.

1976an sortu zen UNED-Bergara unibertsitatea, Promocion Cultural Bergaresa elkartearen osatzen zuen bergarar talde baten eta Jose Luis Elkoro alkatearen Bergarako Udalaren ekimenez. Orduan sortu berri zen UNED unibertsitatearekin egin zituzten izapide guztiak urrutiko hezkuntza eskaintzeko ikastegi bat sortzeko. «Helburu nagusia zen unibertsitate mailako ikasketak urrutira ematea, ikasketak horiek egiteko

aukerarik izan ez zutenentzat, ikasketak utzi behar izan zituztenentzat edota bigarren ikasketak batzuk egin nahi zituztenentzat». Familiarekin eta lanarekin uztartzeko moduko ikasketak ematea, azken batean, egoera guztietara egokituak metodoen bidez.

Halaber, bigarren ardatz nagusia euskal gizartearen beharrak, interesak eta jakin-nahiak asetzeko ikastaroak ematea zen. «Bi helburu horiek gaur egun bizi-bizirik dira».

1976-1977ko ikasturtean 11 unibertsitate ikasketak eskaintzen zituen UNED-Bergarak, eta, gaur egun, 26 unibertsitate mailako gradu, 70 master ofizialek gora eta 20 doktoretza programa eskaintzen ditu. «Ikasketarako laguntza baliabideak, non teknologia berriek eragin handia duten, matrikula egitean ikasleak duen malgutasuna eta UNED-Bergarako langileen lana, horrek guztiak ahalbidetu du ikastetxe hau unibertsitate titulua lortzeko milaka ikasle aukeratu duten bitartekoak izatea».

Unibertsitate Sarrera ematen jarraitzen du. «Bide hau ikasle askok egin du unibertsitate ikasketekin hasi eta unibertsitate titulua lortzeko. Titulu hori lortzeak, ikasle horiei aukera ematen die bizitzan profesionalaren norabidea aldatzeko».

Hain zuzen, 40 urteko ibilbidean, UNED-Bergaran arautu gabeko trebakuntzan diziplina andana landu da. «Ikastaro hauetatik milaka eta milaka ikasle pasatu dira, eta urteotan ikastaro batzuk sendotu egin dira. Adibidez, Psikomotritziaren Eskolak 25 urtetik gorako ibilbidea du ikasleek trebatzen. Liburutegi Laguntzaile Ikastaroa 14. aldira emango da datorren ikasturtean, Idazle Eskolak ere urte horietan guztiak ikasleak trebatzen dihardu, Osteopatian Trebakuntza ikastaroa ematen 2009an hasi ginen, eta aipagarriak ere badira Formakuntza Iraunkorra osatzen duten ikastaroguztiak».

Azkenik, Hizkuntzen Urrutiko Unibertsitate Zentroa UNED unibertsitatearen errenketako bat izan da. Hizkuntzak ikasketako programa bat da, betiere urrutiko unibertsitatearen metodologia berezian oinarrituta. UNED-Bergara ikasketxeak ingelesa, frantsesa, alemana eta euskara ematen ditu gaur egun.



Informazio gehiago bildu nahi izanez gero, bisitatu webgune hau: www.uned.es/ca-bergara